AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZA

4941

EBAZPENA, 2025eko urriaren 9koa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariarena, zeinaren bidez onartzen baitira Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako Informatikako auditore-ikuskatzaile lanpostu bat (Informazio Sistemetako Fakultatiboen Goi Mailako Eskala, A1 azpitaldea, 27. Lanpostu Mailako Osagarria) betetzeko lehiaketa espezifikoaren deialdia eta oinarriak.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 46. artikuluak ezartzen duenez, lanpostu-zerrendek nahitaez adieraziko dute hornitzeko-sistema –dela lehiaketa, dela izendapen askea– eta, hala badagokio, zein administrazio publikotako langileei irekitzen zaien hornikuntza hori. Gainera, lege horren II. kapituluan lanpostuak lehiaketa bidez hornitzeko modua arautzen da.

Deialdi honen xedea da hutsik dagoen lanpostu bat lehiaketa-prozeduraren bitartez betetzea. Karrerako funtzionarioei erreserbatuta dagoen eta aurrekontuan jasota dagoen lanpostu hori Informazio Sistemetako Fakultatiboen Goi Mailako Eskalakoa da (A1 azpitaldea, 27. Lanpostu Mailako Osagarria).

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 5. eta 8. artikuluen arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean azaldu den lanpostua hornitzeko lehiaketa espezifikoaren deialdia egitea.

Bigarrena.– Onartzea lehiaketa horren oinarriak, II. eranskinean azaltzen direnak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honen kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, bi hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 9a.

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakaria,
UNAI ABERASTURI GORRIÑO.

I. ERANSKINA

LANPOSTUA

Lanpostua	Lanpostuaren izena		Lanpostu mota	Betetzeko era	ADM		Tald./ Azpitald	Kidegoa Eskala Aukera	Dot.
7	Informatikako auditore-ikuskatzailea		N	LL	A.2-16/2023		A/A1	EA113	1
	LM osagarriaren maila	Ber. osag.	H E	Derrig. data	Esp.	Ezag. esp.	Ded. araub.	Lantokia	Unitatea
	27	II-B	4 / C2	2029-12-31			% 100	Vitoria-Gasteiz	3

a) Egitekoak: Datu pertsonalak babesteko araudia betetzen dela zaintzeko xedearekin, sektorekako ikuskaritza eginkizuna eta datuak babesteko laguntzaile-sarearen koordinazio eginkizuna izango ditu. Bestalde, teknologia berriekin zerikusia duten azterlanak egingo ditu eta Agintaritzaren Sistemen Planaren garapen eta jarraipena kudeatuko du.

b) Eginkizunak: lanpostuari egozten zaizkion erantzukizunen azalpena.

a) Teknologiek datuen babesean eta prospekzio teknologikoko azterlanen sustapenean duten eragina ebaluatzea eta aztertzea.

b) Segurtasun-arrakalen erregistroa kudeatzea, arrakala horien bilakaeraren eta ebazpenaren jarraipena egitea eta eraginaren ebaluazioak gainbegiratzea.

c) Datuak babesteko ordezkarien sentsibilizazioa sustatzea eta tratamenduaren arduradunek komunikatutako datuak babesteko ordezkarien erregistroaren publizitatea egitea.

d) Prebentziozko auditoriako programak planifikatzea eta kudeatzea.

e) Laguntza eta babesa ematea aurretiazko ikerketa-jarduketetan.

f) DBEAren zerbitzurako informazio-sistemen kudeaketan laguntza ematea.

II. ERANSKINA

DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZAKO INFORMATIKAKO AUDITORE-IKUSKATZAILEAREN LANPOSTU BAT (INFORMAZIO SISTEMETAKO FAKULTATIBOEN GOI MAILAKO ESKALA, A1 AZPITALDEA, 27. LANPOSTU MAILAKO OSAGARRIA) BETETZEKO LEHIAKETA ESPEZIFIKOAREN OINARRIAK

1.– Xedea.

I. eranskinean azaltzen den eta karrerako funtzionarioei erreserbatuta dagoen lanpostu bat betetzea izango da lehiaketa honen xedea.

2.– Parte hartzeko baldintzak.

2.1.– Lehiaketa honetan parte hartu ahalko dute Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako Informazio Sistemetako Fakultatiboen Goi Mailako Eskalako karrerako funtzionarioek (A azpitaldea), bai eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 2. artikuluko 1. apartatuan ezarritako euskal sektore publikoko enteen parekoak diren kidego eta eskaletakoek ere (Informazio Sistemetako Fakultatiboen Goi Mailako Eskala, A1 azpitaldea).

2.2.– Eskatzen diren betekizunak bete beharko dira oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren egunean, eta betetzen jarraitu beharko dira esleitutako lanpostuaz jabetzeko unean ere. Bitarte horretan parte hartzeko eta esleitzeko betekizun horiek betetzen dituztela egiaztatzen ez duten parte-hartzaileak ezingo dira esleituriko lanpostuaz jabetu.

2.3.– Karrerako funtzionarioek deialdi honetan parte hartu ahal dute baldin eta bi urte igaro badira lehiaketa bidez azken lanpostua jabetzan hartu zutenetik.

Deialdi honetan parte hartu ahal dute Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 2. artikuluko 1. apartatuan ezarritako euskal sektore publikoko enteetako lanpostu batean behin-behineko atxikipenean dauden karrerako funtzionarioek.

2.4.– Ezin izango dute lehiaketan parte hartu honako hauek:

– Eginkizun-gabetze irmoan dauden funtzionarioek, egoera horrek dirauen artean.

– Norberaren interesagatiko edo familia elkartzeko borondatezko eszedentzian daudelarik, jarduneko zerbitzura itzultzeko gutxienez eskatutako denbora eman ez duten langileek.

3.– Baloratuko diren merezimenduak.

Lanpostua betetzeko betekizuntzat eskatzen dena ez da baloratuko merezimendu gisa.

Merezimendu hauek baloratuko dira lehiaketan:

– Euskal Sektore Publikoko lan-esperientzia.

– Titulazioak.

– Hobekuntza-ikastaroak.

– Euskara-maila.

– Gradu pertsonal finkatua.

– Antzinatasuna.

– Izangaiak lanposturako egokiak izatea.

4.– Beharrezkoa den gutxieneko puntuazioa eta lor daitekeen gehieneko puntuazioa.

Gehienez 290 puntu lor daitezke. Lanpostua esleitzeko, balorazio osoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 50 lortu beharko da, eta gainera, oinarri hauetako 6.9 oinarriko atal bakoitzean lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 50.

5.– Merezimenduak baloratzeko irizpide orokorrak.

5.1.– Merezimenduak baloratzeko, bi irizpide hartuko dira kontuan: lanpostuarekiko lotura-maila eta merezimenduaren baliozkotasun formalaren maila.

Bi irizpide horiek –lotura-maila eta baliozkotasun formala– ezartzen bazaizkie aurkeztutako merezimenduei, koefiziente bat aplikatuko da merezimendu jakin bat baloratzean, baremo honen arabera: Handia (1), Tartekoa (0,75), Txikia (0,25) edo ezin da baloratu (0). Koefizientea 6. oinarriko baremoetan kategoria bakoitzari esleitutako gehieneko balioarekin biderkatuko da.

5.2.– Soilik baloratuko dira ziurtagiriak egiaztatzeko funtsezkotzat jotzen diren alderdi guztiak (6. oinarria) jasotzen dituzten merezimenduak.

6.– Merezimenduen baremoa. Merezimenduak baloratzeko berariazko irizpideak.

6.1.– Euskal Sektore Publikoko entitateei atxikitako lanpostuetan izandako lan-esperientzia.

6.1.1.– Beste zerbitzu batzuekin batera aldi berean egindako zerbitzuak ez dira inola ere kontuan hartuko. Horri dagokionez, ez dira zenbatuko egitekoak behin-behinean esleituta emandako zerbitzuak.

6.1.2.– Zerbitzu berezietan edo seme-alabak zaintzeko edo senideak zaintzeko eszedentzian emandako aldiak, azken 10 urteotan denbora gehien bete duten funtzionario-lanpostuan baloratuko dira. Funtzionario-lanposturik izan ez dutenei titular gisa erreserbatuta duten lanpostuaren arabera egingo zaie balorazioa. Lanpostu baten titularrak ez badira, bete duten azken lanpostuaren egitekoen arabera egingo da balorazioa.

6.1.3.– Betetzen duten lanpostuko lan-esperientzia moduan hartuko dira egoera hauetan emandako aldiak: prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroak, euskararen ikaskuntza, norberaren gauzetarako baimenak, aldi baterako ezintasuna edo pareko egoerak.

6.1.4.– Euskal Sektore Publikoko beste entitate batzuetan lan egin dutenei zerbitzuen ziurtagirien eta betetako lanpostuaren/lanpostuen monografien arabera egingo zaie balorazioa.

Monografiarik ez badute, lan-esperientzia frogatzeko agirian jasotzen diren zereginak gauzatzeko eskatutako ezagutzak eta trebetasunak baloratuko zaizkie.

6.1.5.– Esperientzia. Azken 10 urteotako lan-esperientzia baloratuko da, gehienez 70 punturekin. Honako baremo hau erabiliko da:

– Lortu nahi denaren lanpostu berdinean izandako lan-esperientzia: 0,6 puntu hilabete bakoitzeko.

– Lortu nahi den lanpostua atxikita dagoen eskalako lan-esperientzia: 0,3 puntu hilabete bakoitzeko.

– Lortu nahi den lanpostua atxikita dagoena baino goragoko talde edo azpitaldeko eskala batean izandako lan-esperientzia: 0,10 puntu hilabete bakoitzeko.

– Lortu nahi den lanpostua atxikita dagoena baino beheragoko azpitaldean izandako lan-esperientzia: 0,05 puntu hilabete bakoitzeko.

6.2.– Tituluak.

6.2.1.– Ikasketa akademiko berdinetako ziklo desberdinak gainditu dituztela frogatzen duten langileei soilik baloratuko zaie frogatutako zikloetatik gorengoari dagokion titulua.

6.2.2.– Ez da merezimendu moduan baloratuko lanpostuan eskatzen den goi-mailako titulazioa lortzeko behar den titulua, ezta ere dagoeneko baloratu diren edo betekizun gisa eskatzen diren beste titulu batzuen aldean administrazio honen iritziz baliokideak diren tituluak.

6.2.3.– Indarrean dagoen araudian titulu akademiko ofizial bati erreferentzia espresua egiten ez dioten lanbide-titulu ofizialak ez dira merezimendu gisa baloratuko.

6.2.4.– Titulu akademikoak. Unibertsitateen edo ospe handiko erakundeen titulu ofizialak edo berezko tituluak baloratuko dira, bete nahi den lanpostuaren zereginekiko lotura kontuan hartuta, eta gehienez 30 punturekin. Honako baremo hau erabiliko da:

– Doktore gradua: 20 puntu.

– Goi-mailako titulu bakoitza: 15 puntu.

– 250 ordutik gorako graduondoko bakoitza: 10 puntu.

– 250 ordu bitarteko graduondoko bakoitza: 5 puntu.

Maila ezberdinetako zenbait titulu aurkezten badira eta titulu horiek gai berari buruzkoak badira edo heziketa-ziklo ezberdinetako parte badira, titulu bakarra hartuko da kontuan.

6.3.– Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroen balorazioa.

6.3.1.– Hobekuntza-ikastaroak Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak, unibertsitateek edo administrazio publikoek antolatutakoak eta homologatutakoak izan behar dira; bestela, prestakuntzaren, giza baliabideen garapenaren, lanbide-kualifikazioaren edo ikerketaren esparruetan ospe handiko erakundeek emanak.

6.3.2.– Azken 10 urteetan egindako ikastaroak baino ez dira hartuko kontuan.

6.3.3.– Iraupena kreditutan ematen bada, kreditu bakoitzak 10 orduko baliokidetza izango du, beste zehaztasunik ematen ez bada behintzat. ECTS kreditu bakoitzak, ordea, 25 orduko baliokidetza izango du.

6.3.4.– Gai berari buruzko ikastaroak edo ikastaro beraren edizio ezberdinak behin bakarrik baloratuko dira; arlo horretan ordu-kopuru handiena duena aukeratuko da horretarako.

6.3.5.– Hizkuntza-ikastaroak ez dira baloratuko.

6.3.6.– Prestakuntza-eta hobekuntza-ikastaroak. Deialdiko lanpostuari dagozkien eginkizunekin zerikusia duten arloetan burututako hobekuntza-ikastaroak gainditzeagatik 40 puntu emango dira, gehienez, honako baremo honen arabera:

– 200 orduko edo gehiagoko ikastaro bakoitza: 10 puntu.

– 100 ordutik gorako ikastaro bakoitza: 5 puntu.

– 60 ordutik gorako ikastaro bakoitza: 2,5 puntu.

6.4.– Euskara. Merezimendu gisa baloratuko da euskara, gehienez 40 punturekin, puntuazio honen arabera:

– B1 hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 10 puntu.

– B2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 25 puntu.

– C1 edo C2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 40 puntu.

6.5.– Argitalpenak. Eskatutako lanpostuek berezko dituzten eginkizunekin zerikusia duten argitalpenak 10 punturekin baloratuko dira gehienez:

– Prestigio profesional aitortua duten aldizkarietan: 10 puntu gehienez.

– Gainerako argitalpenak: 7,5 puntu gehienez.

6.6.– Irakaskuntza eta ikerkuntza. Deialdiko lanpostuei dagozkien eginkizunekin edo lanpostuok betetzeko eskatzen diren trebetasunekin zerikusia duten arloetan burututako irakaskuntza-eta ikerkuntza-jarduerengatik –IVAPek eta/edo beste administrazio publikoren batek antolatu edo homologatuak, edo prestigio aitortua duten erakundeek emanak– 15 puntu emango dira, gehienez.

Azken 15 urteetan egindako jarduera baino ez da baloratuko, honako baremo honen arabera:

– Ikastaro ordu bakoitzeko 0,25 puntu, gehienez 10 puntu, baldin eta eskatutako lanpostuek berezko dituzten eginkizunekin zerikusia badu ikastaroak.

– Kongresu, mintegi eta/edo jardunaldietan aurkeztutako komunikazioengatik edo bertan modu nabarmenean parte hartzeagatik, 2,5 puntu gehienez.

– Kongresu, mintegi eta/edo jardunaldietan aurkeztutako komunikazioengatik, 7,5 puntu gehienez.

– Ikerketa-proiektuetan parte hartzeagatik, 7,5 puntu gehienez.

6.7.– Finkatutako gradu pertsonala. Parte hartzeko aukeratutako kidego edo eskalan gradu pertsonala finkatuta izateagatik 15 puntu emango dira gehienez, honako era honetan banatuta:

– Eskatutako lanpostuaren destino-osagarriaren pareko edo goragoko gradu pertsonala izanez gero: 15 puntu.

– Eskatutako lanpostuaren destino-osagarria baino maila bat baxuagoko gradu pertsonala izateagatik: 7,5 puntu.

6.8.– Antzinatasuna. Ondorio horietarako, karrerako funtzionario egoerara heldu baino lehenago eman diren eta aitortu diren zerbitzuak ere baloratuko dira. Aldi berean betetako zerbitzuak ez dira birritan konputatuko.

– Euskal Sektore Publikoko instituzioetan egindako hilabeteko lanagatik 0,05 puntu, gehienez 20 puntu.

6.9.– Izangaiak lanposturako egokiak izatea.

Ezagutzari buruzko probak eta trebetasunak edukitzeari buruzkoak gehienez 60 punturekin baloratuko dira. Proba horietan, prozedurak azaltzeko memoria bat aurkeztu eta aldeztu behar da. Horren bidez, izangaiak frogatuko du deialdiko lanpostuaren eginkizunak egiteko gaitasuna eta ezagutza badituela.

6.9.1.– DBEAko Eragin Teknologikoak eta Segurtasun Arriskuak Ebaluatzeko Unitatearen kudeaketa-memoria bat egitea. Apartatu hori gehienez 30 punturekin baloratuko da. Gutxienez 15 puntu lortu beharko dira proba gainditzeko.

Merezimendu hori deialdiko lanpostuaren eduki funtzionalean oinarrituko da eta memoria horrek Unitatearen funtsezko alderdiei buruz eta beraren helburuei buruz kudeaketa-proiektu baten edo jarduketa-egitarau baten oinarrizko ildoak zehaztu beharko ditu.

6.9.2.– Memoria defendatzea. Merezimendu hori gehienez 30 punturekin baloratuko da, eta gutxienez 15 puntu lortu beharko dira hutsik dagoen lanpostua esleitzeko.

Lehiakideak memoria azaldu beharko du.

7.– Merezimenduak eta betekizunak alegatzea eta egiaztatzea.

7.1.– Irizpide orokorrak.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu behar dira baloratu nahi diren betekizun eta merezimendu guztiak. Prozedura honen ondorioetarako soilik, ofizioz baloratuko dira langileen erregistroan azaltzen diren merezimenduak, eta alegatutako merezimendutzat hartuko dira, beste administrazio publiko batzuetako esperientzia izan ezik, hori beti alegatu beharko baita.

7.2.– Lan-esperientzia.

Euskal Sektore Publikoan izandako lan-esperientzia egiaztatzeko, eman diren zerbitzuei buruz entitateak egindako egiaztagiria aurkeztu beharko da. Egiaztagiri horrek, entitate bakoitzak erabakitzen duen ereduan, lan egindako aldiak banakatu beharko ditu, taldea, kidegoa, aukera, eskala, mota edo kategoria eta lanpostuaren izena zehaztuta.

7.3.– Titulu akademikoak.

7.3.1.– Tituluak alegatu egin beharko dira, eta titulu eta ziurtagirien erregistro bateratuari (RUTC) kontsulta eginez egiaztatuko dira.

7.3.2.– Titulu ofizialak eta atzerriko tituluak homologatzeko ziurtagiriak Hezkuntza Ministerioak edo unibertsitateetako errektoreek emanak behar dute izan.

7.3.3.– Araututako lanbide baten lanbide-kualifikazioa aitortzen duen egiaztagiria aurkeztu ahal izango da, Europar Batasunaren xedapenen babesean, dagokion titulu akademikoaren egiaztagiriaren ordez.

7.4.– Prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroak.

Ikastaroak alegatu egin behar dira; horiek egiaztatzeko, kopia konpultsatua aurkeztu beharko da, edo ikastaro horiek antolatu edo deitu dituen organoaren nahiz entitatearen ziurtagiria. Edozein kasutan, hasiera-ordua, amaiera-ordua, iraupena –ordutan– eta ziurtagiria egin duen entitatea jaso behar dira.

7.5.– Euskara.

Euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko da eskabideak aurkezteko epean.

Bi dekretu hauetan dago zehaztuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen hizkuntza-eskakizunen ziurtagiri eta titulu baliokideak zein diren: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena; eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena.

7.6.– Argitalpenak.

Betiere agerrarazi beharko dira hedabidearen izena, argitalpenaren urtea, egilea edo egileak eta orrialde kopurua. Halaber, argitalpena irispidean izateko URL-a edo beste bide bat ere agerrarazi ahal da.

7.7.– Irakaskuntza eta ikerkuntza.

Organo sustatzaileak egindako egiaztapen-txostena aurkeztea, txosten horretan jardueraren izena, emandako irakaskuntza-orduak eta datak adierazita.

7.8.– Gradu pertsonala.

Euskal Sektore Publikoan aitortutako gradu pertsonala egiaztatzeko, langileen arloan eskumena duten organoen ziurtagiria aurkeztu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, IV. eranskineko eredua bete daiteke; bestela, ereduko alderdi guztiak jasotzen dituen beste edozein erabili ahalko da.

7.9.– Antzinatasuna.

Euskal Sektore Publikoko instituzioetan lortutako antzinatasuna, langileen arloan eskumena duten organoen ziurtagiri bidez egiaztatuko da. Egiaztapen hori egiteko, IV. eranskineko eredua bete daiteke; bestela, ereduko alderdi guztiak jasotzen dituen beste edozein erabili ahalko da.

7.10.– Izangaiak lanposturako egokiak izatea.

6.9 eta 9.4 apartatuen arabera, behin betiko zerrendan agertzen diren izangaiek prozedurak azaltzeko memoria bat aurkeztu eta aldeztu behar dute. Horren bidez frogatuko dute deialdiko lanpostuaren eginkizunak egiteko gaitasuna eta ezagutza badituztela.

Azalpen-memoria 15 egun naturaleko epean entregatu beharko da, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Hain zuzen ere, zerrenda horiek argitaratzeko egunean, balorazio-batzordeak proposatuko ditu memoria garatzeko eta aurkezteko hautatu beharreko eginkizunak eta/edo prozedurak.

Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda argitaratzeaz batera, izangaien eskura jarriko da Unitateari dagozkion antolaketa- eta eginkizun-alderdiei eta edukiei buruzko oinarrizko dokumentazioa.

Azalpen-memoria horretan jasoko da lanpostuko eginkizun bat edo batzuk burutzeko prozedura, egin beharreko atazak irudikatzeko eskematizazio-maila nahikoarekin.

Balorazio-batzordeak gutxienez 7 egun naturaleko aurrerapenarekin jakinaraziko du defentsa noiz egingo den.

Batzordeak honako hauek baloratuko ditu, besteak beste: memoriaren egitura eta barne koherentzia, arloaren ezagutza edo menderatze-maila, esparru teorikoa, etorkizuneko ikuspegia, antolaketa estrategikoa, egindako proposamenak, ekarpenak, ondorioak eta alderdi osagarriak edo berritzaileak.

Halaber, lehiakideak memoria nola azaldu duen kontuan hartuta, balorazio-batzordeak beste alderdi batzuk ere baloratuko ditu, hala nola hari egindako galderen erantzunak edo memoriaren edukia komunikatzeko trebetasuna. Halaber, besteak beste, honako alderdi hauek baloratuko ditu: erabilitako bitartekoak, arloaren menderatze-maila, aurkezteko argitasuna edo laburtzeko gaitasuna.

7.11.– Merezimenduen eta betekizunen zuzenketa.

Interesdunei eskatu ahalko zaie zerbait argitzeko edo dokumentazio osagarria aurkezteko, baldin eta betekizun bat behar bezala egiaztatzeko edo alegatu diren merezimenduak baloratzeko beharrezkotzat jotzen bada. Horrelakoetan, izangaiari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean aurkez dezala eskatu zaion informazioa.

7.12.– Erreferentzia-data.

Oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren eguna erreferentziatzat hartuta baloratuko dira merezimenduak.

8.– Balorazio-batzordea.

8.1.– Osaera.

Balorazio-batzordea kide-kopuru bakoiti batek osatuko du, gutxienez hiruk, eta betekizunak egiaztatzeaz, merezimenduak baloratzeaz, deialdia egin duen organoari puntuaziorik onenak lortu dituzten hautagaien esleipena proposatzeaz eta, oro har, oinarri hauek betetzen direla bermatzeaz arduratuko da.

Balorazio-batzordearen osaeran, emakumeen eta gizonen ordezkaritzak orekatua izan beharko du, non eta ez den behar bezala justifikatzen ez dela egokia. Ordezkaritza orekatutzat joko da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza duenean.

Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa.

Batzordearen erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira. Berdinketak lehendakaritzan diharduenaren kalitate-botoaren bidez ebatziko dira.

Balorazio-batzordeak adituak izendatzeko eska diezaioke deialdia egin duen agintaritzari, aholkulari modura, hitzarekin baina botorik gabe, jardun dezaten.

8.2.– Kualifikazioa.

Balorazio-batzordeetako kideak karrerako funtzionarioak izango dira, eta deitutako lanpostuen titulazio-talde bereko edo goragoko talderen bateko kidego edo eskaletakoak izango dira.

8.3.– Jarduera.

Balorazio-batzordeak askatasun osoz, zuhurtzia teknikoz eta objektibotasunez jardungo du, eta bere proposamenak lotesleak izango dira Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariarentzat.

Batzordeak zuhurtzia teknikoz jardun behar badu ere, bere erabakietan arrazoiak jaso beharko dira, halaxe xedatzen baita indarreko araudian eta oinarri hauetan.

Batzordearen jarduna oinarri hauek arautuko dute, bai eta lege-arau hauetan ezarritakoak ere: Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak.

Prozesu orotan hautaketa-organoek berdintasunaren, eginkizun-arloko autonomiaren eta profesionaltasunaren aldetik bete behar dituzten printzipioak eraginkorragoak izan daitezen (Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikuluaren arabera), balorazio-batzordeko kide guztiak prozeduraren gardentasun eta objektibotasunaren, proben eduki eta konfidentzialtasunaren eta deialdiko oinarriak zorrotz betetzearen erantzule izango dira, harik eta prozedura egokiaren bidez argitaratu arte.

Balorazio-batzordeak oinarriak aplikatzeari buruz sortzen den edozein zalantza ebazteko baimena dauka, eta, oinarri hauetan ezartzen ez den guztian, lehiaketa behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu. Orobat, oinarrietan jasota ez dauden kasuak direla-eta ezarri behar diren irizpideak erabakiko ditu, betiere legeriari eta zuzenbideari estu lotuta.

Balorazio-batzordeetako kideei eta haien aholkulariei ordaindu beharreko konpentsazio ekonomikoek, halakorik ordaindu behar denean, Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretua bete beharko dute, zeina ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuaren bidez aldatu baitzen (121/2006 Dekretua, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Dekretua hirugarren aldiz aldatzekoa).

8.4.– Izendapena.

Batzordeko kideak honako hauek dira:

– Batzordeburua: Aitor Iriarte Goikoetxea.

– Ordezkoa: Juan Carlos Barredo Salazar.

– Idazkaria: Ainara Ugalde López.

– Ordezkoa: Juana María Vegas Fernández.

– Batzordekide bat: Román Intxaurtieta Madariaga.

– Ordezkoa: Roberto González del Hierro González.

9.– Lehiaketaren fasak.

9.1.– Eskabideak aurkeztea.

9.1.1.– Lehiaketa honetan parte hartzeko eskabideak 15 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, oinarriak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta deialdiaren III. eranskinean agertzen den eredua erabili beharko da.

9.1.2.– Ahal dela, bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira eskabideak, «Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro elektroniko orokorraren» bitartez.

URL: https://www.euskadi.eus/web01-sedeform/es/x43kToolkitWar/form/fdp?procedureId=1017701&tipoPresentacion=1&language=eu

9.1.3.– Halaber, egoera aktiboan ez dauden edo lanpostuan aldi baterako ez dauden langileek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako erregistroetako edozeinetan aurkeztu ahal dute eskabidea, eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariari bidali beharko diote.

9.1.4.– Eskabideak aurkezteko epea bukatu ostean, ez da onartuko aldaketarik egitea eskabideetan. Hala ere, lehiaketan parte hartzen duten pertsonek lehiaketan parte hartzeari uko egin ahalko diote edozein unetan eta, nolanahi ere, behin betiko esleipena baino lehen, esleipenen behin-behineko zerrendari buruzko erreklamazioetarako ezarritako 10 eguneko epean, 9.7.1 oinarriaren arabera.

9.1.5.– Lanpostua betetzeko baldintzak egiaztatzeko agiriak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak, hala badagokio, eskabidearekin batera aurkeztu behar dira, 7. oinarrian zehazten den moduan.

9.2.– Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako administrazio-zerbitzuek balorazio-batzordeko buruaren esku utziko dituzte aurkeztutako eskabideak eta horiei buruzko agiriak.

Balorazio-batzordeak eskakizunak bete direla egiaztatuko du, hala behar izanez gero, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda prestatuko du eta horiek 10. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratzea erabakiko du. Interesdunek 5 egun baliodun izango dituzte erreklamazioak aurkezteko.

9.3.– Erreklamazioak aztertzea eta onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda prestatu eta argitaratzea.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta gero, balorazio-batzordeak erreklamazio horiek ebatziko ditu, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda prestatuko du, eta hori 10. oinarrian azaldutako lekuetan argitaratzea erabakiko du.

9.4.– Deialdia, prozedurak azaltzeko memoria bat aurkeztu eta aldezteko, zeinaren bidez izangaiek frogatuko baitute deialdiko lanpostuaren eginkizunak egiteko gaitasuna eta ezagutza badituztela.

Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratzeaz batera, 15 egun naturaleko epea emango da, hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, oinarri hauen 7.10 apartatuan azaltzen den memoria aurkezteko.

Balorazio-batzordeak gutxienez 7 egun natural lehenago jakinaraziko du defentsa noiz egingo den. Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie, balorazio-batzordeak ezarritako egunean eta orduan.

9.5.– Merezimenduak baloratzea eta behin-behineko emaitzak eta proba gainditu duten parte-hartzaileen zerrenda argitaratzea.

Balorazio-batzordeak baloratuko ditu agertu diren eta onartu diren izangaien merezimenduak, zerrenda prestatuko du, lortutako puntuazioak adierazita, eta zerrenda hori 10. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratzea erabakiko du. Interesdunek 5 egun baliodun izango dituzte erreklamazioak aurkezteko.

9.6.– Erreklamazioak aztertzea eta behin betiko emaitzak prestatu eta argitaratzea.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta gero, balorazio-batzordeak erreklamazio horiek ebatziko ditu, merezimenduen balorazioaren behin betiko zerrenda eta gutxieneko puntuazioa lortu duten parte-hartzaileen behin betiko zerrenda prestatuko du, eta horiek 10. oinarrian azaldutako lekuetan argitaratzea erabakiko du.

9.7.– Esleipenaren behin-behineko zerrenda argitaratzea. Atzera egiteko epea.

9.7.1.– Esleipenaren behin-behineko proposamena 10. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratzea erabakiko da, eta 10 egun balioduneko epea emango da interesdunek erreklamazioak aurkez ditzaten. Hori izango da, halaber, parte-hartzaileek lehiaketan parte hartzeko eskaeran atzera egiteko izango duten azken epea.

9.7.2.– Esleipen-proposamenean, balorazioaren emaitza hartuko da kontuan.

Puntuazioan berdinketarik egonez gero, honako irizpide hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren, berdinketa argitzeko:

– Merezimenduetan lortutako puntuazioa, deialdiaren oinarrietan adierazitako hurrenkeraren arabera.

– Antzinatasuna, funtzionarioak dituen eskaletatik lehiaketan parte hartzeko aukeratu duen horretan karrerako funtzionario gisa lan egindako denbora.

– Antzinatasuna, karrerako funtzionario gisa lan egindako denbora.

– Antzinatasuna, azken behin betiko lanpostuan lan egindako denbora eta Administrazioan lan egindako denbora.

9.8.– Atzera egiteko eskaerak aztertzea. Esleipen-proposamena Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariari helaraztea.

Erreklamazioak eta atzera egiteak aurkezteko epea igaro ostean, balorazio-batzordeak ebatzi egingo ditu eta esleipenaren behin betiko proposamena helaraziko dio Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariari.

9.9.– Lehiaketaren behin betiko ebazpena argitaratzea.

Esleitzeko behin betiko proposamena jaso eta gero, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariak onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko aginduko du. Agindu horren kontra, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daiteke, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

10.– Argitaratzeko lekua.

Lehiaketan parte hartzen dutenentzako informazio garrantzitsu guztia eta, zehazki, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko eta behin betiko zerrendak, merezimenduen balorazioaren behin-behineko eta behin betiko zerrendak, merezimenduen zuzenketa, erreklamazioak eta esleipenen behin-behineko eta behin betiko zerrendak helbide hauetan argitaratuko dira:

Intraneta: Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren ataria.

Internet: www.avpd.eus

Oinarri hauetan ezarritako epeak zenbatzeko, argitalpen horrek bakarrik balio izango du. Horrenbestez, ez da beharrezkoa izango bestelako iragarki-ohol edo hedabideetan argitaratzea.

11.– Destinoaren esleipena. lanpostua uztea eta lanpostuaz jabetzea.

11.1.– Esleipendunak lehiaketan lortutako lanpostuaz jabetu beharko du eta, ondorioz, horren aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko du, non eta, lanpostuaz jabetzeko epea amaitu baino lehen, deialdi publikoaren bidez beste destino bat lortu ez duen, izan gertatzezko baliaezintasunagatik, izan jarduneko zerbitzuaz besteko egoerara igarotzeagatik, edo behar beste justifikatutako eta organo deitzaileak antzemandako bestelako arrazoiengatik.

11.2.– Antolaketa-arrazoiak direla eta, esleipen-ebazpenean zehaztuko da zein den esleipendunaren kargu-uztearen eta lanpostuaz jabetzearen data zehatza; kasu guztietan, kargua utzi eta hurrengo egunean jabetuko da lanpostuaz esleipenduna.

11.3.– Lehiaketa honetan, lanpostua gordetzea dakarten egoeretatik parte hartu eta destinoa lortu duen langileak, administrazio-egoera horretan jarraituko duela ulertuko da, non eta, aurreko apartatuan adierazitako bost egun balioduneko epean, berriro laneratzea eskatzen ez duen.

11.4.– Esleitutako destinoa borondatezkotzat joko da, eta ez du kalte-ordainak kobratzeko inolako eskubiderik sortuko.

12.– Lehiaketako datu pertsonalen babesa eta kudeaketa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia betetze aldera, datu pertsonalak «hautaketa-prozesuak» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Datuak Babesteko Euskal Agintaritza.

Helburua: enplegu publikora sartzeko prozesuak kudeatzea eta funtzionarioen lanpostuetarako lekualdatze-lehiaketak eta zerbitzu-eginkizunak kudeatzea.

Legitimazioa: interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzearen alde egindako misioa betetzeko beharrezko tratamendua.

Informazioaren hartzaileak: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta DBEAren webgunean eta iragarki-oholean argitaratzen da.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: gure webgunean kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza.

Araudia:

– Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra.

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Balorazio-batzordeak aginduta, 11. oinarrian aipatutako lekuetan argitaratuko dira honako hauek: onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda, gutxieneko puntuazioa gainditu duten izangaien behin-behineko eta behin betiko zerrenda eta esleipenaren behin-behineko zerrenda. Horietan guztietan, ahalik eta datu pertsonal gutxien azaldu beharko dira: publikotasun-printzipioa betetzeko beharrezkoak besterik ez. Datuok bere horretan utzi beharko dira harik eta esleipen-prozesua amaitzen den arte eta erreklamazio edo errekurtsoak gauzatzeko beharrezkoa den denbora gehigarri guztian.

Zerrenda horiek klausula bat edukiko dute ohartarazteko zerrendotan datu pertsonalak ageri direla, datuak babesteko gaur egungo legeria betetzen dutela eta datuon helburu bakarra dela lehiaketaren fase jakin batean parte hartzen duten pertsonei informazioa ematea eta, hala egokitzen denean, parte-hartzaileei jakinarazpena egitea. Horrez gain, informazio-paragrafo bat ere edukiko dute, adierazteko datuok ez direla edonork hartu edo erabiltzeko, eta ezin izango direla erreproduzitu -ez osorik ez zatika-, transmititu, edo edonolako errekuperazio-sistema erabilita erregistratu, ukitutako hautagaiek berek horretarako baimenik eman gabe.

Deialdiko lanpostuaren behin betiko esleipena onartzeko Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariak emandako agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denean, ahalik eta datu pertsonal gutxien azaldu beharko dira, publikotasun-printzipioa betetzeko beharrezkoak besterik ez.

III. ERANSKINA

PARTE HARTZEKO ESKABIDEA:

EBAZPENA, 2025eko urriaren 9koa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariarena, zeinaren bidez onartzen baitira Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako Informatikako auditore-ikuskatzaile lanpostu bat (Informazio Sistemetako Fakultatiboen Goi Mailako Eskala, A1 azpitaldea, 27. Lanpostu Mailako Osagarria) betetzeko lehiaketa espezifikoaren deialdia eta oinarriak.

1.– Datu pertsonalak.

1. abizena	2. abizena	Izena	NAN zk.

Helbidea (zk. eta pisua)	Posta kodea	Lurralde historikoa edo probintzia	Udalerria

Telefonoa	Posta elektronikoko helbidea

2.– Datu administratiboak.

Zein administrazio/entitatetakoa den	
Administrazio-egoera	Egoeraren hasiera-data
Lekualdatze-lehiaketan eskuratutako azken lanpostuaz jabetu zeneko data	
Lanpostua amortizatuta badago edo pertsona lanpostutik mugiarazi badute, berariaz adierazi behar da	

Taldea	Kidegoa	Fakultatiboen kidegokoa bada, espezialitatea

3.– Desgaitasunen bat alegatu nahi duten izangaiak.

Hala badagokio, proiektua eta/edo defentsa egiteko behar diren egokitzapenak azaldu, idazki bat erantsiz.

4.– Alegatutako merezimenduak.

4.1.– Esperientzia. Egindako lana.

Lanpostuaren izena	Lanpostuaren kidegoa(k)	Pertsonaren kidegoa	Egoera	LM osagarriaren maila	Hasiera-data	Amaiera-data

4.2.– Titulazioak.

Tituluaren izena	Titulua eman duena

4.3.– Hobekuntza-ikastaroak.

Ikastaroaren izena	Orduak	Ikastaroaren izena	Orduak

4.4.– Euskara.

Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna	

4.5.– Gradu pertsonala.

4..6.– Antzinatasuna.

Administrazioa	Hilabete kopurua

5.– Erantsitako agiriak.

	Erantsi dira?		Agiri-kopurua
5.1.– Esperientzia. Egindako lana.	BAI □	EZ □	
5.2.– Titulazioak.	BAI □	EZ □	
5.3.– Hobekuntza-ikastaroak.	BAI □	EZ □	
5.4.– Euskara.	BAI □	EZ □	
5.5.– Gradu pertsonala.	BAI □	EZ □	
5.6.– Antzinatasuna.	BAI □	EZ □	

Eskabideari erantsita aurkezten ditut alegatutako merezimenduen egiaztagiriak, justifikazioak, fotokopiak eta abar. Behean sinatzen duenak eskatzen du deialdian parte hartzeko onar dezatela, eta adierazten du eskabidean adierazitako datuak egiazkoak direla.

.....(e)n, 2025eko.....aren.....(e)an.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Erregelamendua (EB), pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa (DBEO), Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia betetze aldera, datu pertsonalak «Hautaketa-prozesuak» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Datuak Babesteko Euskal Agintaritza.

– Helburua: enplegu publikora sartzeko prozesuak kudeatzea eta funtzionarioen lanpostuetarako lekualdatze-lehiaketak eta zerbitzu-eginkizunak kudeatzea.

– Legitimazioa: interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzearen alde egindako misioa betetzeko beharrezko tratamendua.

– Informazioaren hartzaileak: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta DBEAren webgunean eta iragarki-oholean argitaratzen da.

– Eskubideak: datuetara irispidea izatea, datuak zuzentzea eta ezereztea, bai eta beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian azaltzen direnak.

– Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza duzu gure webgunean: www.avpd.eus

IV. ERANSKINA

ANTZINATASUNA ETA ESKURATU NAHI DEN LANPOSTUKO EGINKIZUNEKIN LOTUTA EGINDAKO LANA EGIAZTATZEKO EREDUA

EBAZPENA, 2025eko urriaren 9koa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren presidentearena, zeinaren bidez onartzen baitira Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako Informatikako auditore-ikuskatzaile lanpostu bat (Informazio Sistemetako Fakultatiboen Goi Mailako Eskala, A1 azpitaldea, 27. Lanpostu Mailako Osagarria) betetzeko lehiaketa espezifikoaren deialdia eta oinarriak.

Jauna/Andrea:

KARGUA:

HONAKO HAU ZIURTATZEN DU:

Entitate honetan ditugun datuak ikusi eta gero, behean adierazitako funtzionarioak honako zerbitzu hauek ditu egiaztatuta:

1. Datu pertsonalak eta administratiboak.

1. abizena	2. abizena	Izena	NAN zk.	Taldea	Kidegoa	Teknikarien kidegokoa bada, espezialitatea	Gradu pertsonala
Administrazio-egoera:				Egoeraren hasiera-data			

a) Antzinatasuna (kalkulua egiteko onartua).

Administrazioa		Hilabete-kopurua	

b) Eskatzen den lanpostuko eginkizunekin lotuta egindako lana.

Lanpostuaren izena	Kidegoa Eskala Lanpostuaren aukera	Kidegoa Eskala Pertsonaren aukera	Egoera	LM osagarriaren maila	Hasiera-data	Amaiera-data	Lanpostuko eginkizun nagusiak (atzeko aldean informazio gehiago idatz daiteke)

Eta egiaztagiri hau egiten du interesdunak hala eskatuta, aipatutako lehiaketan ondorioak izan ditzan.

.....(e)n, 2025eko.....aren.....(e)an.